

## **2025ean Oñartzungo Xanistebanak jaietan ekitaldiak antolatzeke dirulaguntzak.**

### **1. ARTIKULUA.- Xedea eta helburuak.**

Ebazpen honen xedea hau da: 2025ean zehar, Oñartzunen, Xanistebanak herriko jaietan, ekitaldiak antolatzen dituzten herri eragileei, norgehiagoka prozeduraren bidez, dirulaguntzak banatzeko Oñartzungo Udalaren dirulaguntzen oinarri arautzaileak ezartzea.

Dirulaguntza hauetan kontuan izango da Oñartzungo Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantza, 2025-2027rako dirulaguntzen Plan Estrategikoa, eta Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testuategia, 1/2023 Legegintzako Dekretuz, martxoaren 16an onartuak jasotzen duena. Honen arabera, 16, 18.4, 23. eta 24.2 artikuluetako printzipio orokorrak Euskal Autonomia Erkidegoko herri-aginte guztiei aplikatuko zaizkie baita erakunde pribatuei ere, baldin eta Erkidegoko herri aginteetako batekin kontratuak edo lankidetzak hitzarmenak sinatzen badituzte, edo herri-aginte horiek emandako laguntzen edo dirulaguntzen onuradunak badira.

Beraz, pertsona edo elkarte onuradunak aplikatzeko zaion indarreko araudi guztia errespetatu beharko du, eta bereziki emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testuategia, 1/2023 Legegintzako Dekretuz, martxoaren 16an onartua.

### **2. ARTIKULUA.- Onuradunak eta parte-hartze baldintzak.**

Oro har, dirulaguntza hauetarako aukera izan dezakete Oñartzungo Xanisteban jaietan interes orokorreko ekitaldiak antolatzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoen elkarteak, Oñartzungo Udalaren dirulaguntzak emateko Ordenantza Orokorrek ezartzen duen moduan.

Oñartzundik kanpoko pertsona edo erakundeek kasuan, Ordenantza Orokorrek ezartzen dituen irizpideak jarraituko dira.

Diruz laguntzen diren ekintzak irekiak izango dira, herritarren artean inolako bereizkerarik egin gabe.

Ezingo dute dirulaguntzarik jaso deialdi honen bidez bere izaera eta helburuak direla eta, udalaren beste arlo edo erakunde autonomo batzuen, beste programa baten edo batzuen bidez bideratu behar direnak. Dena den, dagokion erakunde edo udal arloetara bideratuko da eskaera, eta horren berri emango zaio interesatuari.

Ez zaie dirulaguntza emango ondorengo entitateei:

- Elkarteak sexu-bereizkeriatik zigor administratiboa edo penala jaso duenean.
- Erakundeak edo entitateak bere helburuetan, onarpen-sisteman, funtzionamenduan, ibilbidean edo jardueretan emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioaren aurkakoak diren edo argi eta garbi bereizkeriak diren kontuak edo alderdiak dituztenei.
- Ezingo dute onuradun izaera eskuratu beren baitan gizon eta emakumeen presentzia eta parte-hartzea berdintasun egoeran gauzatzea galarazten duten elkarteek, salbu eta, sexu bakarreko kideek osatutako elkarteak izanik, helburu

nagusia gizon eta emakumeen arteko berdintasuna lortzea edo emakumezkoen nahiz gizonezkoen berariazko interes eta beharrak sustatzea dutelarik.

Erakunde onuradunak udalarekin dituen ahozko zein idatzizko harremanak euskaraz izango dira.

Erakunde onuradunak diruz lagundutako jardueran argitaratzen diren idatzi, iragarki, ohar eta gainerako komunikazioak orokorrean euskaraz ezagutarazi beharko ditu, eta publizitatearekin ere, ahozko zein idatzia izan, berdin jokatu du.

### **3. ARTIKULUA.- Diruz lagunduko ez diren gastuak.**

Ez da diru laguntzarik emango honelako gastuetarako:

- Oñartzungo udalerritik kanpo gauzatzen diren ekitaldietarako.
- Eskabidea egiten duen entitateko bazkideentzat bakarrik diren ekitaldietarako.
- Udal sail beraren edo beste udal sail baten berariazko eskumenekoak diren eta horien laguntza edo hitzarmen baten barruan sartzen diren ekitaldiak.
- Dirulaguntza ematen den ekitaldi ekonomikoan ez, baizik eta beste batean gauzatuko diren jarduera edo ekitaldiak prestatu edo alde aurreko lanak egitea xede duten ekintzak.
- Ikastaroak edo ikaslanak.

### **4. ARTIKULUA.- Diru laguntzaren kontzeptuak eta irizpideak. Zenbatekoa.**

Diru laguntzaren zenbatekoa eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioaren arabera finkatuko da, aurrekontuan erabilgarri dagoena eta jarraian deskribatzen diren kuantifikazio irizpideak jarraituz.

#### **4.1. Diru laguntzak emateko irizpideak**

Diru laguntzak ematean, oro har, irizpide hauek hartuko dira kontuan:

#### **Xanistebanak jaietako ekintzak baloratzeko irizpideak:**

| <b>Parte- hartzaile, ikusle, antolatzaile kopurua</b> | <b>Puntuak gehienez: 20</b> |
|-------------------------------------------------------|-----------------------------|
| <100                                                  | 5                           |
| 100-300                                               | 10                          |
| >300                                                  | 20                          |

| <b>Jai Batzordean parte- hartze aktiboa</b> | <b>Puntuak gehienez: 20</b> |
|---------------------------------------------|-----------------------------|
| 5 puntu Jai Batzordeko bilera bakoitzeko    | 5 x 4 = 20                  |

| <b>Aurrekontua eurotan</b> | <b>Puntuak gehienez: 20</b> |
|----------------------------|-----------------------------|
| 0€-1500€                   | 0                           |

|             |    |
|-------------|----|
| 1501€-3000€ | 5  |
| 3001€-4500  | 10 |
| 4501€-6000€ | 15 |
| >6000 €     | 20 |

|                                          |                             |
|------------------------------------------|-----------------------------|
| <b>Aurrekontuan elkartearen ekarpena</b> | <b>Puntuak gehienez: 20</b> |
| % 20a baino gutxiago jarri du onuradunak | 0                           |
| % 20 - 39 bitartean jarri du onuradunak  | 5                           |
| % 40 - 59 bitartean jarri du onuradunak  | 10                          |
| % 60 - 79 bitartean jarri du onuradunak  | 15                          |
| % 80 - 99 bitartean jarri du onuradunak  | 20                          |

|                                                                                                                                                                                  |                                        |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------|
| <b>Emakumezkoen parte-hartzea sustatzeko berariazko ekimenak</b>                                                                                                                 | <b>Puntuak gehienez: 20</b>            |
| Emakumezkoen eta gizonezkoen parte hartzean oreka lortzeko neurriak ikuskizunean (2 p) , ikuslegoan (2 p) eta antolaketan (2 p).                                                 | 2 puntu atal bakoitzeko, gehienez 6.   |
| Genero ikuspegia eta parekidetasun irizpideak txertatzea proiektuetan.                                                                                                           | 2 puntu neurri bakoitzeko, gehienez 4. |
| Ekitaldian ikuspegi estereotipatuak desagerraraztea eta genero-rolak apurtzea sustatzea.                                                                                         | 2 puntu neurri bakoitzeko, gehienez 4. |
| Bereizkeria anizkoitza pairatzen duten emakumeen parte hartzea errazteko berariazko neurriak hartzea (adineko emakumeak, etorkinak, alargunak, aniztasun funtzionala dutenak...) | Puntu 1 neurri bakoitzeko, gehienez 4. |
| Bizitza familiarra, pertsonala eta lanekoa, eta ekitaldietan parte hartzea bateragarri egiteko berariazko neurriak hartzea.                                                      | Puntu 1 neurri bakoitzeko, gehienez 2. |

|                                                                                                                                                                                                                    |                             |
|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------|
| <b>Bazterkeria arriskuan dauden kolektiboak erakartzeko ahalegina (haurrak, gazteak, emakumeak, adinekoak, desgaitasuna duten pertsonak, atzerriko jatorria duten pertsonak..., bazterkeria arriskuan badaude)</b> | <b>Puntuak gehienez: 10</b> |
| Kolektibo 1                                                                                                                                                                                                        | 5                           |
| > 2 kolektibo                                                                                                                                                                                                      | 10                          |

|                                                  |                             |
|--------------------------------------------------|-----------------------------|
| <b>Jai Batzordean landutako baloreak lantzea</b> | <b>Puntuak gehienez: 10</b> |
| Balore 1                                         | 5                           |
| > 2 balore                                       | 10                          |

|                                                          |                             |
|----------------------------------------------------------|-----------------------------|
| <b>Ekitaldiaren proposamenaren kalitatea</b>             | <b>Puntuak gehienez: 20</b> |
| Aurrekontuaren zehaztasuna                               | 4                           |
| Giza baliabideen zehaztasuna                             | 4                           |
| Baliabide materialen zehaztasuna                         | 4                           |
| Egitarau zehatza eta hausnartua                          | 4                           |
| Hizlari, artista, talde edo parte hartzaileen curriculum | 4                           |

Irizpide hauekin eskaera bakoitza baloratu ondoren, dagokion diru partidaren gordetako dirua ekitaldi guztien artean proportzionalki banatuko da.

#### 4.2. Aurrekontua

Dirulaguntza hauek ordaintzeko, guztira, 60000 € euroko izendapena eginda dago, Oiertzungo Udaren 2025 urteko aurrekontuko 1 0331.481.338.00.10.2025 zenbakidun partidaren kontura.

Oiertzungo Udalak baimendutako gastua handitu edo murriztu ahal izango du dauden eskaera guztiak aztertu ondoren. Horrek ez du beste deialdi bat egitea ekarriko.

#### 4.3. Gehienezko dirulaguntza eta aldaketak

Oinarri hauetan araututako dirulaguntzen zenbatekoak ezin du inola ere gainditu diruz lagundutako jardueraren kostua, ez berak bakarrik, ez beste dirulaguntza, bestelako laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin batera.

Dirulaguntza emateko kontuan hartu diren baldintzetan edozein aldaketa gertatuz gero, eta nolanahi ere, oinarri hauetan baimendutako kasuez kanpo diru laguntza hauekin batera laguntzak jasoz gero, gerta daiteke dirulaguntza emateari buruzko ebazpena aldatzea.

### 5. ARTIKULUA.- Eskaerak aurkezteko lekua eta dokumentazioa

Eskaerak Udaleko Erregistro Nagusian aurkeztu behar dira Udalak horretarako jarriko dituen eskaera orrietan. Halaber, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16.4 artikulua aipatzen dituen lekuetan ere aurkeztu ahal izango dira.

Dirulaguntzaren eskaera egiteko, dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

- Eskaera orria.
- proiektuaren, jardueraren edo programaren txostena. (I. eranskina)
- Programaren gastuen eta sarreraren aurrekontua (II. Eranskina)

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, Oiertzungo Udalak bitarteko elektronikoen bidez egingo ditu deialdi honetarako beharrezkoak diren egiaztapenak eta kontsultak, datu elkarreragingarri hauek lortzeko:

- Identitatea: Elkartea, erakunde edo interesatu eskatzailearen IFZa edo NAN (pertsone fisikoaren kasuan).
- Eskaera egiten duen elkartea, erakunde edo interesatuaren kontu korrantearen titulartasuna.
- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzea.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.3 artikulua araberak, Oiertzungo Udalak ezin baditu agiri horiek elektronikoki bildu, salbuespen gisa, eskatu ahal izango dio interesdunari horiek aurkezteko.

Horiek guztiak, interesdunak eskabidean berariaz aurkakorik adierazi ezean; aurka azalduz gero, honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu eskatzaileak:

- Identitatea: Elkartea, erakunde edo interesatu eskatzailearen IFZa edo NAN (pertsona fisikoen kasuan).
- Eskaera egiten duen elkartea, erakundeak edo interesatuak kontu korronte bat ireki duela egiaztatzen duen banketxearen edo aurrezki kutxaren ziurtagiria.
- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla egiaztatzen duten ziurtagiriak.
- 

#### **6. ARTIKULUA.- Akatsak zuzentzea eta dokumentazio osagarria aurkeztea**

Eskaerak edo horrekin batera doan dokumentazioak ez baditu identifikazio datuak biltzen, akatsen bat badu edo zerbait falta bada, eskatzaileari eskatuko zaio 38/2003 dirulaguntzak arautzen dituen Lege Orokorrak eta Udal Ordenantza Orokorrak ezarritakoari jarraiki, hamar eguneko epean akats horiek zuzentzeko; eta adieraziko zaio ezen, hori egingo ez balu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, aipatu legearen 23. artikuluan aurreikusitako moduan.

#### **7. ARTIKULUA.- Epeak**

Eskaerak, dirulaguntza deialdi hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren, epe honen barruan egin ahal izango dira: 2025eko maiatzaren 1etik 31era.

Aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe badago edo oinarrietako baldintzaren bat betetzen ez badu, hamar egun balioduneko epea emango zaio interesdunari akatsak zuzendu ditzan edo dagokion dokumentazioa gehitu dezan, Oiertzungo Udalaren dirulaguntzak emateko Ordenantza orokorrak 20. artikuluan aipatzen duena jarraituz.

#### **8. ARTIKULUA.- Beste dirulaguntzekin bateragarritasuna**

Araudi honetako dirulaguntzak bateragarriak izango dira erakunde publiko edo pribatuek xede bererako eman ditzaketan bestelako dirulaguntzekin. Bateragarritasunari buruz sortu daitezkeen zalantzak argitzeko, Oiertzungo Udalaren dirulaguntzak emateko Ordenantza Orokorrak 14. artikuluan finkatzen dituen irizpideak jarraituko dira.

#### **9. ARTIKULUA.- Emateko prozedura**

Dirulaguntzak emateko prozedurak, Oiertzungo Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantzak IV. Tituluan (22-23 artikulua) zehazten diren pausoak jarraituko ditu, bertan azaltzen diren baldintzekin:

- Kultura arloko teknikariak dirulaguntza eskariak ebaluatuko ditu.
- Txostena egin eta Herriarren Batzordera eramango du, honek txostena kontuan hartuta, bere iritzia eman eta behin-behineko proposamena luzatu dezan.
- Tokiko Gobernu Batzordeak behin-behineko proposamena onartuko du, hamar eguneko epea eskainiz interesatuei alegazioak aurkezteko. Prozeduran pertsona interesdunek argudiatutakoak beste egintzarik, alegaziorik edo frogarik agertzen ez

denean, entzunaldi-izapide hori bazter utzi ahal izango da. Kasu horretan, ebazpen-proposamena behin betikoa izango da.

- Aurkeztutako alegazioak (baleude) aztertu ondoren, behin betiko ebazpen-proposamena egingo da. Proposamen horrek dirulaguntzaren emakidarako proposatzen dituen eskatzaileen zerrenda eta zenbatekoa adierazi beharko ditu, bere ebaluazioa eta hori egiteko erabilitako balorazio-irizpideak adierazita, eta baita zer eskaera ez dituen aintzat hartu eta zer arrazoitan oinarritu den ere.

Udaleko iragarki taulan eta [www.oiartzun.eus](http://www.oiartzun.eus) web orrian ere behin-behineko proposamenaren eta behin betiko ebazpenaren berri emango da.

Behin betiko ebazpena egiteko eta jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa da, 7. artikuluan zehazten den epetik kontatzen hasita. Epe hori ebazpena espreski jakinarazi gabe igarotakoan, pertsona edo erakunde eskatzaileek ezetsitzat jo ahal izango dituzte beren dirulaguntzarako eskaerak.

Dirulaguntza ordaintzea: Behin betiko dirulaguntzaren jakinarazpena eman dela jakinarazi ondoren, ordainketa tramitatuko da. Halaber, kontuan izango dira Oiertzungo Udalaren dirulaguntzei buruko Ordenantzaren VII. Tituluan aipatzen diren aspektu guztiak.

Dirulaguntza eman dela jakinarazi bezain laster, dirulaguntzaren % 80a ordainduko da, eta honetarako ez zaie inongo bermerik eskatuko onuradunei. Gainerako % 20a ekitaldia amaitu ondoren ordainduko da, eskaera egiteko aurkeztu zen aurrekontuari dagokion gastua justifikatu ondoren. Justifikazioa egiterakoan kontuan hartuko da dirulaguntza emateko orduan oinarritzat hartu zen gastuaren aurrekontua, eta benetako gastua. halaber, Ordenantza Orokorraren VIII. Tituluan aipatzen diren aspektu guztiak.

## **10. ARTIKULUA.- Onuradunen betebeharrak**

Deialdi honetako dirulaguntzak jaso dituztenek, Oiertzungo Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantzaren 6. artikulua ezartzen dituen betebeharrak bete beharko dituzte.

Erakunde edo elkarte onuradunak diruz lagundutako jardueran honako parekidetasun arloko eskakizunak bete beharko ditu:

- Diruz lagundutako jarduerari buruzko informazio, publizitate eta propaganda guztietan, lengoaia eta irudi mota guztien erabilera ez sexista egingo dute, sortzen diren dokumentu eta euskarrietan.
- Eskaera, izen-emate orri, memoria guztietan antolatzaile eta erabiltze edo onuradunen datuak sexuagatik desagregatuta jaso beharko dira.
- Genero ikuspegia eta parekidetasun irizpideak txertatzea proiektuetan.
- Elkarte eta erakunde guztiek, beren zuzendaritza-organoetako eta organo kolegiatuetako kide izateko pertsonak izendatzerakoan, izendatutakoen artean trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatua izan dadila sustatu behar dute. Xede horretarako, beharrezkoak diren arauzko neurriak edo bestelakoak hartuko dituzte.

Organo emaileari, hala badagokio, edozein Administrazio edo erakunde publiko zein pribatutatik, nazional zein nazioartekotatik diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko duten beste diru laguntzak, laguntzak, diru sarrerak edo baliabideak lortu izana jakinarazi.

Diru laguntzaren emakidarako kontuan izan den edozein gertaera objektibo zein subjektiboren aldaketa jakinarazi.

Diruz lagundutako jardueraren hedapen ekintzetan, jasota geratu beharko du Oiertzungo Udalaren diru laguntza bidezko lankidetzak.

Jardueran aritzean, pertsonaren funtsezko eskubideekiko behar den errespetua erakutsiko da eta indarrean diren legeak errespetatuko dira.

## **11. ARTIKULUA.- Dirulaguntza justifikatzea**

Dirulaguntza justifikatzeko, entitate edo pertsona onuradunak jarraian zehazten den dokumentazioa aurkeztu beharko du:

- a) Eskaera orria.
- b) Eginiko eta diruz lagundutako jardueraren azalpen memoria.
- c) Gastu eta diru sarreraren balantzea.
- d) Aurkeztutako justifikanteen zerrenda.
- e) Eginiko gastuaren ordainagiriak. Ordainagiri hauek, ezinbestez, diru laguntza eman zeneko helburu eta ekintzei dagozkien gastuei buruzkoak beharko dira izan. Ez dira onartuko beste helburu batzuetarako egindako gastuen egiaztagiria. Justifikazioa egiterako orduan kontuan hartuko da diru laguntza ematerako orduan oinarritzat hartu zen gastuaren aurrekontua, eta benetako gastua. Proporzionaltasunaren araua aplikatuko da, beti ere emandako diru laguntzaren mugaraino. Egiaztagiriak Oiertzungo Udalaren diru laguntzen Ordenantza Orokorrak ezarritako ezaugarriak bete beharko dituzte.
- f) Jasotako beste diru laguntzen zerrenda
- g) Ekintzari buruzko bi argazki formatu digitalean. (argazki hauek udalak herri intereserako helburuetarako erabili ahal izango ditu).

Dirulaguntzaren bigarren ordainketa, diruz lagundutako programa edo jarduera justifikatzeko dokumentazioa aurkeztearen baldintzapean geratuko da. Justifikazio hau aurkezteko epe muga izango da: 2025eko irailaren 30a.

## **12. ARTIKULUA.- Diru laguntza itzultzea**

Deialdi honetako 11. artikulua ezartzen duena betez, diru-laguntza eman deneko jardueraren gastuaren aurrekontuari dagokion gastua justifikatzen ez bada, diru-laguntza osoa edo zati bat eta dagokion berandutze-interesa itzuli beharko da, Oiertzungo Udalaren diru-laguntzak arautzen dituen Ordenantzaren IX. Tituluak arautzen duen prozedura jarraituz.

## **13. ARTIKULUA.- Araudi osagarria**

Deialdi honek ezartzen ez duenari dagokionez, aintzat hartuko da Oiertzungo Udalaren laguntzak arautzen dituen Ordenantzak ezartzen duena eta Herri Administrazioetako diru laguntzak arautzen dituen 38/2003 Legearen xedapenak.

## I. ERANSKINA: proiektuaren, jardueraren edo programaren txostena

Eskatzaileak nahi izanez gero, eranskin honen ordezt gutxienez ondorengo alderdiak deskribatzen dituen txosten propioa ekarri ahal izango du.

### 1. PARTE HARTZAILEAK

| Antolakuntzan (ekintza aurretik)                                        |         |         |
|-------------------------------------------------------------------------|---------|---------|
| Emakumeak                                                               | Gizonak | Guztira |
| Ikusleak/erabiltzaileak                                                 |         |         |
| Emakumeak                                                               | Gizonak | Guztira |
| Parte hartzaileak ekintzan (egunean bertan, antzezleak, musikariak,...) |         |         |
| Emakumeak                                                               | Gizonak | Guztira |

### 2. DESKRIBAPENA

**Ekitaldiaren deskribapen laburra:**

**Jai Batzordean aurrein landu diren baloreak nola landuko diren ekitaldian:**

**BALOREA zein:** \_\_\_\_\_

**Nola landuko da:** \_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

**BALOREA zein:** \_\_\_\_\_

**Nola landuko da:** \_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

### 3. HELBURUAK

### 4. EKINTZAK GAUZATZEKO EGUNAK ETA TOKIAK

| Jarduera | Eguna | Tokia<br>Eguraldi ona: | Tokia<br>Eguraldi txarra: |
|----------|-------|------------------------|---------------------------|
|          |       |                        |                           |
|          |       |                        |                           |
|          |       |                        |                           |
|          |       |                        |                           |
|          |       |                        |                           |
|          |       |                        |                           |

### 5. PROIEKTUAREN HARTZAILEAK. NORI ZUZENDUA DAGO EKINTZA?

## 6. GIZA BALIABIDEAK

|                                                                                                                                                                |           |         |         |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------|---------|---------|
| <i>Zenbat pertsona beharko dira antolakuntzan? Zein betebeharrak izango dituzte?<br/>Erantsi giza baliabideen kopuruak eta ardurak sexuagatik desagretuta.</i> |           |         |         |
| Zeregina, ardura                                                                                                                                               | Emakumeak | Gizonak | Guztira |
|                                                                                                                                                                |           |         |         |
|                                                                                                                                                                |           |         |         |
|                                                                                                                                                                |           |         |         |

## 7. BALIABIDE MATERIALAK ETA AZPIEGITURAK\*

\* Baliabideak hemen zehazteak ez du esan nahi horiek udalak jarri behar baditu eskaera egin behar ez denik.

|  |
|--|
|  |
|--|

## 8. PAREKIDETASUNA SUSTATZEKO NEURRIAK

|                                                                                                                 |
|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <i>Emakumezkoek eta gizonezkoek parte hartzeko landutako neurriak:</i>                                          |
| <i>Proiektuan genero ikuspegia txertatzeko neurriak:</i>                                                        |
| <i>Ekintzan ikuspegi estereotipatuak desagerrarazteko eta genero-rolak apurtzeko neurriak:</i>                  |
| <i>Bereizkeria anizkoitza dutenen parte hartzea errazteko neurriak:</i>                                         |
| <i>Bizitza familiarra, pertsonala eta lanekoa, eta ekitaldietan parte hartzea bateragarri egiteko neurriak:</i> |

## **9. BAZTERKERIA ARRISKUAN DAUDEN KOLEKTIBOAK ERAKARTZEKO AHALEGINA**

*Kontuan hartutako kolektiboa eta eginiko ahalegin (neurri zehatzak) deskribatu, hala bada kasua:*

## II. ERANSKINA: Programaren gastuen eta sarreraren aurrekontua

| Gastuak (azalpena) | Zenbatekoa |
|--------------------|------------|
|                    |            |
|                    |            |
|                    |            |
|                    |            |
|                    |            |
|                    |            |
|                    |            |
|                    |            |
|                    |            |
| GUZTIRA (A)        |            |

| Sarrerak (azalpena) | Zenbatekoa |
|---------------------|------------|
|                     |            |
|                     |            |
|                     |            |
|                     |            |
|                     |            |
|                     |            |
| GUZTIRA (B)         |            |

| Emitza                | Zenbatekoa |
|-----------------------|------------|
| Emitza, guztira (A-B) |            |

| Udalari eskatzen zaion dirulaguntza:<br>(gastu osoa ezin du gainditu) | Zenbatekoa |
|-----------------------------------------------------------------------|------------|
|                                                                       |            |

| Elkarteak bere diru-iturrietatik jarritakoa edo lortutakoa | Zenbatekoa |
|------------------------------------------------------------|------------|
|                                                            |            |

#### IV. ERANSKINA: Jardueraren memoria (justifikazioa)

##### 1. PARTE-HARTZAILEAK

Zenbat pertsonak parte hartu dute ekitaldian?

| Antolakuntzan (ekintza aurretik)                               |         |         |
|----------------------------------------------------------------|---------|---------|
| Emakumeak                                                      | Gizonak | Guztira |
| Ekitaldian parte hartzen                                       |         |         |
| Emakumeak                                                      | Gizonak | Guztira |
| Ekitaldia ikusten (egunean bertan, antzezleak, musikariak,...) |         |         |
| Emakumeak                                                      | Gizonak | Guztira |

##### 2. EKITALDIAREN BALORAZIO OROKORRA

##### 3. JASOTAKO BESTE DIRULAGUNTZAK

| Erakundea | Zenbatekoa | Egoera<br>(Ebatzi gabe, ebatzita baina kobratu gabe edo<br>kobratua) |
|-----------|------------|----------------------------------------------------------------------|
|           |            |                                                                      |
|           |            |                                                                      |
|           |            |                                                                      |
|           |            |                                                                      |



### V. ERANSKINA: Gastu eta dirusarreraren balantzea (justifikazioa)

[illegible]

| Sarrerak (azalpena) | Zenbatekoa | Guztira |
|---------------------|------------|---------|
|                     |            |         |
|                     |            |         |
|                     |            |         |
|                     |            |         |
|                     |            |         |
|                     |            |         |
|                     |            |         |
|                     |            |         |
|                     |            |         |
| <b>GUZTIRA (B)</b>  |            |         |

| Emaita                | Zenbatekoa |
|-----------------------|------------|
| Emaita, guztira (A-B) |            |

**VI. ERANSKINA: Gastua zuritzea (justifikazioa)**

**Justifikanteen zerrenda:**

| Faktura zk. | Data | Hornitzailea IFK eta izena | Azalpena | Zenbatekoa |
|-------------|------|----------------------------|----------|------------|
|             |      |                            |          |            |
|             |      |                            |          |            |
|             |      |                            |          |            |
|             |      |                            |          |            |
|             |      |                            |          |            |
|             |      |                            |          |            |
|             |      |                            |          |            |
|             |      |                            |          |            |
|             |      |                            |          |            |
|             |      |                            |          |            |
|             |      |                            |          |            |
|             |      |                            |          |            |
|             |      |                            |          |            |
|             |      |                            |          |            |
|             |      |                            |          |            |
|             |      |                            |          |            |
|             |      |                            |          |            |
|             |      |                            |          |            |
|             |      |                            |          |            |
|             |      |                            |          |            |
|             |      |                            |          |            |
|             |      |                            |          |            |
|             |      |                            |          |            |

GUZTIRA

GASTUAREN JUSTIFIKANTEEK bete beharko dituzten baldintzak ondorengoak izango dira:

- Antolatzailearen izena, helbidea eta IFZ
- Hornitzailearen izena, helbidea eta IFZ
- Data
- Faktura zenbakia
- Hornidura edo zerbitzuaren deskribapena

Tiketen kasuan nahikoa izango da hornitzailearen izena eta IFZ.